



IRURAKO IKASTOLAK, GURASOENTZAT ANTOLATUTAKO HITZALDI ETA FORMAKUNTZAK

Otsailak 10 / asteazkena **16:45** Irurako ikastolako aretoan
ZIBERSEGURTASUNERAKO SENTSIBILIZAZIO FORMAKUNTZA

Aurrez izena eman beharko da

Otsailak 22 eta martxoak 1 / astelehena **17:00**
 Anoetako Herri ikastolan

NERABEEN SEXUALITATEAREN BIDAIDEA

- DBH-ko gurasoentzat
- (Anoeta eta Irurako ikastolen eta udalen artean antolatuta)

Otsailak 23 / asteartea **15:00** Anoetako Herri ikastolan
KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA, NEREA MENDIZABALEN ESKUTIK.

- Aurrez izena eman beharko da
- (Anoeta eta Irurako ikastolak antolatuta)

OHARRA

COVID-19aren inguruko oharra www.irura.eus webgunean aurkituko dituzue.

NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la oficina de cultura



Otsailak 23
IPUIN KONTAKETA:
IDEIAK...
NONDIK DATOZ?



euskara



castellano

1/ astelehena **19:00–21:00** Herri eskola

ODOL EMATEAK

Covid-19ak eraginadako egoerak behartuta, odol emaileek gonbidapen mezu bat jasoko duzue eta mezuan agertzen den telefono zenbakira deitu beharko duzue hitzordua eskatzeko.

- (Irrurako odol Emaileen Elkarteak antolatuta)



5/ ostirala **18:30** Trinkete tabernan

POTE FILOSOFIKOA

Hizlaria: Iñigo Martinez filosofoa.

“Ez ezazu galdu denbora!”, “ikasi ezazu!”, “positiboa izan zaitetz!”, “ez zaitetz hill!”, “ausar zaitetz!”, “bila ezazu berriena!”...

Zein aginduk ematen diote gure bizitzari forma? Nola eragiten digute “mandamentu hipermoderno” horiek? Iñigo Martinez filosofoarekin pote baten inguruan elkartuko gara aurrekoek solasteko, animatzen?

- Euskaraz
- Helduentzat
- Gonbidapena eskatzen du



10/ asteazkena **18:30** liburutegia

MAITASUN IRAKURKETAK

Maitasunari eta sexualitateari buruzko hausnarketa berritzaileak iradokitzen dituen Valerie Tassoren Sexo 4.0. Un nuevo (des)orden amoroso liburuaz solasteko elkartuko gara.

- Liburua gaztelaniaz eta solasaldia euskaraz
- +18 urte
- Kontakua: irakurletaldeairura@gmail.com



19/ ostirala **18:30** kulturunean

ERRADIKALAK GIÑEN

Erradikalak ginen, gara eta izango gara. Bertso eta bakarrizketa formatuan, Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal kontalaria: zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz, interseksionalitateaz, beldurraz, biolentziaz eta zeharkatzen gaituzten beste hainbat gauza kantatu eta kontatuko dituzte.

- Euskaraz
- Helduentzat
- Gonbidapena eskatzen du



23/ asteartea **17:30** kulturunean

IPUIN KONTAKETA:

IDEIAK...

NONDIK DATOZ?

Sorgina Txirulinararen eskutik

- Euskaraz
- 8 eta 12 urte bitartekoentzat
- Gonbidapena eskatzen du



26/ ostirala **18:30** kulturunea

“HAIZEAREN EGIA” FILM LABURRA + MAHAI INGURUA

Tahar Euskadin bizi den 20 urteko mutil sahararra da. Tindufeko errefuxiatu eremuan jarraitzen du haren familiak. Egun batean dei bat jasoko du: bere aita hiltzen ari da.

Tahar itzuli egingo da, eta bere iraganari, zauriei, oroitzapenei eta kontraesanei aurre egingo die.

Lortuko al du bere bizitzako piezak dagokien lekuan jartzea?

Garaiz lortuko ote dute elkar ulertzea? Eta elkarri barkamena eskatzea?

- Euskaraz
- Helduentzat
- Gonbidapena eskatzen du

